

7 GIPUZKOA

Altxerri ibaia Agorregin



Ingurumen-garrantzia

Altxerri ibaia kontserbazio egoera onean dago. Uraren eta ibar landareen kalitatea ona da. Ibar-basoan zuhaitz

mota ugari ditugu, baina batez ere, haritzak (*Quercus robur*), lizarrak (*Fraxinus excelsior*) eta haltzak

(*Alnus glutinosa*). Oso habitat egokia da arraintzat eta ibai ekosistemari lotutako faunari.

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 1,7 km



40 min



Udalerria:

Aia

Hurbileko herria:

Laurgain / Aia



Ibaia:

Altxerri



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo



183 m



88 m



101 m



108 m

ALTXERRI IBAIA
AGORREGIN



Altxerri ibaia Agorregin



Non dagoen eta nola heldu

Altxerri ibaia, Oriaren adarra ezker aldetikoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren iparraldeko erdian dago, Donostialdea eskualdeko Aia udalerriko Laurgain inguruan.



Pagoeta Natura Parkean bertan dago, Agorregiko errota eta burdinola eremuaren parean. Zarautz eta Aia lotzen dituen GI-2631a hartu ahal dugu Pagoetara joateko, edo, bestela, GI-4164a Manterola eta Agorregirantz. Abiapuntua Iturraran baserriko aparkalekuan dugu, Pagoeta Natura Parkearen interpretazio etxearen ondoan. Bertara, Laurgain auzotik helduko gara. Bertan gozatu ahal dugu munduko hainbat tokitako 5000 baino landare mota gehiago dauzkan lorategirik bitxienetako bat.

Halaber, ikusgai dugu labe handiak agertu baino lehenagoko XVIII. mendean burdingintzarako erabiltzen zen egitura hidraulikoa. Ondoren, Altxerri ibaiaren goiko tartea bisitatuko dugu.

Horretarako, ibaiaren ezker aldeko bidexka hartuko dugu, ibilguaren norabidean, beti ibaia ikusgai dugula. Laster, presa txiki bat eta burdinola eremuaren ur-hodietako baten zama-ganbera ikusiko ditugu.

Ibai ertzetik jarraiki, haltzez eta lizarraz jositako ibar basoa eta ibai-paisaia gozatu ditugu. Itzulbidea bide beretik egin dezakegu eta, bide batez, errota eta burdinolen funtzionamendurako, ura indar eragilea zeneko garai bateko aztarnak gozatu.

Edozein urtarotan egin daiteke bisitaldia.



Deskargatu ibilbidea:



KML







GPX

Ezagutu ibilbide guztiak hemen:



Wikiloc

Altxerri ibaia Agorregin



Altxerri ibaia Agorregin

